
MUNDUENEA
MUNDUKO IPUINEN ETXEA

DEABRUAREN ZUBIA

EL PONT DEL DIABLE



LABAYRU FUNDAZIOA

AUDIO LIBURUA

IPUINA ENTZUN

ESCOLTA EL CONTE

Munduenea, munduko ipuinen etxea online

www.munduenea.labayru.eus

© LABAYRU FUNDAZIOA. 2022
EDITOREA: LABAYRU FUNDAZIOA (ZIORTZA ARTABE, IGONE ETXEBARRIA, AKAITZE KAMIRUAGA ETA BIOSNE ZARANDONA)
COLON DE LARREATEGI 14, 2. ESK. 48001 BILBO
WWW.LABAYRU.EUS

JATORRIZKO TESTUA ETA AHOTSA: SUSANNA MARTIN SEGARRA
TESTUEN MOLDAKETA ETA AHOTSA EUSKARAZ: YOLANDA ARRIETA
ILUSTRAZIOAK: ENRIQUE MORENTE
MAKETAZIOA: BIKO KOMUNIKAZIOA
INPRIMATEGIA: GERTU
I.S.B.N: 978-84-19063-09-0
LEGE GORDAILUA: BI 01390-2022

LAGUNTZAK: EGITASMO HONEK BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ETA EUSKO JAURLARITZAREN LAGUNTZAK JASO DITU.

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org, 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

DEABRUAREN ZUBIA



EL PONT DEL DIABLE

LabayruFundazioa

HIZTEGIA
VOCABULARI

- Deabru = Diable
- Neskame = Criada
- Ur = Aigua
- Iturri = Font
- Potin = Càntir
- Erreka = Riu
- Tratu = Tracte
- Oilar = Gall
- Zubi = Pont
- Baranda = Barana

Beste leku askotako ipuin tradizionalen eredua dakar Kataluniako ipuin honek. Katalana latinetik datorren hizkuntza da eta, batez ere, Katalunian, Valentzian, Balear Uharteetan eta Andorran hitz egiten da, baita mugakide diren zonalde batzuetan ere.


Aquest conte procedent de Catalunya, respon a una mena de conte tradicional molt estès comú a altres territoris. El català es parla a Catalunya, València, Illes Balears, Andorra i altres zones confrontants.




ALGUER (SARDINIA)

Aspaldi, Kataluniako Isòvol herrian, neska gazte bat bizi zen: Poneta.
Poneta neskame zegoen etxe aberats batean, eta lan astunak egin behar izaten zituen. Ur bila joatea izaten zen gogorrena.

Fa molt de temps, al poble català d'Isòvol, vivia una noia: la Poneta.
La Poneta treballava com a criada en una casa senyorial,
en la qual havia de fer moltes tasques pesades.
La més dura era anar per aigua.





Iturria errekaz bestaldean zegoen, eta Ponetak ozta-ozta igarotzen zuen erreka hori, esku banatan bi ur-potin hartuta.

Eurite-sasoietan, gutxien uste zenean igotzen zen ura; eta, erdian harrapatuz gero, akabo! Urtero galtzen zen neskameren bat errekan, urak eramanda.



La font estava a l'altre cantó del riu, i la Poneta el creuava com podia amb els dos càntirs a cada mà.

A més, en èpoques de pluja el riu creixia de cop i volta; i si enxampava a algú creuant-lo, quin drama! Cada any desapareixia alguna criada perquè se l'enduia l'aigua.







Ponetak goizero eskatzen zien izarrei, ilargiari eta zeruari:

—Gaur ez dadila goitik urik etorri, mesedez!

La Poneta tots els matins demanava a les estrelles, a la lluna i al cel:

— Que avui no plogui, si us plau!



Goiz batean, ehiztari batek erreguka ikusi zuen Poneta.
Berarengana hurbildu eta xuxurlatu zion:

—Deitu Satanasi.

—Nor da hori?


—Deabrua.

Un matí, un caçador va veure a la Poneta suplicar.
S'apropà a ella i li va xiuxiuejar:

— Invoca a en Satanàs.

— Qui és en Satanàs?

— El Diable.



Ehiztariak alde egin zuen. Eta Ponetak pentsatu zuen bere artean:
«Ez daukat ezer galtzekorik, deitu egingo diot!».

Esan eta egin. Ponetak Satanasi hots egin zion:

—Deabruari eskatzen diot errekak ez nazala eraman, ez gaur, ez inoiz!

El caçador va marxar. I la Poneta va pensar per a sí:
«No tinc res a perdre, li cridaré!».

Dit I fet. La Poneta va invocar a en Satanàs.

— Demano al diable que el riu no se m'emporti, ni avui, ni mai!





Adi-adi igaro zuen eguna Ponetak, deabrua nondik agertuko zain. Iluntzean azaldu zitzaion, ke artean, sufre-usain ikaragarriarekin.

—Entzun dut zure eskaria —esan zion—. Eta tratua dakarkizut.

—Zer tratu?

—Oilarrak jo orduko eraikiko dut zubia; eta, trukean, arima emango didazu zuk.

Ponetaren bihotzak salto egin zuen paparrean: «Arima ematea bizia galtzea da», pentsatu zuen bere artean.

Baina gauzatxo bat otu zitzaion, eta bostekoa luzatu zion deabruari.

—Ados!

La Poneta passà tot el dia esperant a que arribés el diable. Se li va aparèixer al capvespre, envoltat de fum i amb una intensa olor de sofre.

— He sentit la teva petició —li va dir—. I et proposo un tracte.

— Quin tracte?

— Construiré un pont abans de que canti el gall; I, a canvi, em donaràs la teva ànima.

A la Poneta quasi se li surt el cor del pit: «Donar l'ànima és perdre la vida», va pensar per a sí.

Però se li va ocórrer una idea, i li va encaixar la mà al diable.

— D'acord!






Gau berean hasi zen deabrua zubia eraikitzen, harri bat hor, harri bat hemen.

Ponetak ez zuen begirik biltzen: une egokiaren zain egon behar zuen.

El diable començà a construir el pont aquella mateixa nit, una pedra per aquí, una altra per aquí.

La Poneta no pegava ull: havia d'esperar el moment oportú.






—Ez zait asko falta! —esan zuen deabruak, halako batean.
— No falta massa! —va dir el diable, en un moment donat.

Deabruari zubiaren baranda jartzea besterik ez zitzaiola falta ikusi zuen Ponetak. Hala bada, argia hartu eta oilategira joan zen.

La Poneta va veure que a el diable només li faltava posar la barana al pont. Així doncs, va agafar el llum d'oli i va anar cap al galliner.



Argia ikusi zuenean, oilarrak eguna zela pentsatu zuen.
Beraz, goizero bezala hasi zen kantuan:

—Kukurruku!



En veure la llum del llum d'oli, el gall va pensar que ja era de dia; així que es va posar a cantar com cada matí:

— Quiquiriquí!

Deabrua urduri-urduri jarri zen.

—Zer?! Argitu du, jada?! Oraindik ez dut zubia amaitu-eta!

El diable es sobresaltà.

— Com?! Ja es de dia?! Si encara no he acabat el pont!






Orduan, Poneta deabruari hurbildu zitzaion eta esan zion:
—Oilarrak jo aurretik amaitzekotan geratu zinen,
baina oilarrak jo du eta ez duzu amaitu. Beraz, nire arima neurekin geratuko da.

Aleshores, la Poneta es va apropar al diable i li va dir:
— Vas prometre acabar abans de que cantés el gall,
però el gall ja ha cantat i no has acabat. Així que conservaré la meva ànima.



— Tximista gorrien gona! —oihukatu zuen deabruak—. Arimarik gabe, ezin izan pertsona!

— Llamps i trons! —va exclamar el diable—. Sense l'ànima no puc ser persona!





Hala bada, deabruak, pertsona modura bizitzeko aukera galduta, etxera itzuli behar izan zuen, hau da, infernura.

Així que el diable, en perdre l'oportunitat de viure com una persona, va haver de tornar a casa seva, és a dir, a l'infern.





Ponetak, berriz, bere lorpenari begiratzen zion goizero, poz-pozik.

—Isòvol herriko zubia! Barandarik gabeko zubia!

En canvi, la Poneta contemplava encantada el seu assoliment tots els matins.

— El pont d'Isòvol! Un pont sense barana!






Eta, deabrua infernuan eta zubia errekan, neskame guztiak joan ziren ur bila, arima aldean eta bakean!




I, amb el dimoni en l'infern i el pont en el riu, totes les criades varen anar per aigua, amb ànima i sense por!



MUNDUENEA
MUNDUKO IPUINEN ETXEA

*Munduenea. Munduko ipuinen etxea*n hamar ipuin batu ditugu, gure artean bizi diren kultura ezberdinetako hiztunei jasota. Bilduma 6-10 urte bitarteko umeei zuzenduta dago. Inguruko kultura eta hizkuntza aniztasunak dakarkigun aberastasuna ipuinen bidez erakustea da helburua. Jatorrizko hizkuntzan eta euskaraz entzun eta irakurri ahal izango dituzu. Munduko ipuinen etxera sartu nahi?

Munduenenea. Munduko ipuinen etxea és una col·lecció de deu contes, d'altres tantes cultures que conviuen en el nostre entorn, dirigits a nens i nenes de 6-10 anys.



A través dels contes es pretén mostrar la riquesa que ens aporta aquesta diversitat de cultures i llengües. Entra a la casa dels contes, i descobreix-los tant en la llengua original com en euskera.


MUNDUENEA
HITZA HITZ
A PALABRA É A PALABRA


MUNDUENEA
GIZON ABERATSA
ایک امیر آدمی


MUNDUENEA
KATU ARTISTAK
LES CHATS ARTISTES


MUNDUENEA
EID AL FITR-EKO OPARIA
هدية عيد الفطر


MUNDUENEA
MATSU, ITSASOKO JAINKOSA
妈祖，海上之神


MUNDUENEA
DORTOKA ZEKENA
IJAPA OLOJUKOKORO


MUNDUENEA
ZORIONTSU IZATEKO GAKOA
CAABI NGIR AM MBËKTE


MUNDUENEA
TXILI'BITU MAGIKOA
FLUIERAȘUL MAGIC


MUNDUENEA
CAIPORA



9 788419 063090

LabayruFundazioa